

ARAOTZ, escuela de escalada

MARTIN RAMIREZ

ES esta una historia centrada muy cerca de nuestras casas, a unos pocos kilómetros...

Tiene un comienzo tranquilo, un agradable mar de aguas cálidas y transparentes en el que nadaban distintas clases de peces y sobre cuyo fondo vivían diversos animales y plantas: algas, corales, variados moluscos, etc.

¿Bahamas?, ¿Hawaii? No. Como ya hemos dicho hablamos de nuestra tierra, pero, entonces..., ¿dónde está ese paraíso? Montémonos en

Antosiñako ikuspegia.
Horman, Josean «El dulce abismo»-n (6c).





Jabi «Kili-Kili»-n (6a).


la máquina del tiempo y viajemos cien millones de años hacia el pasado. ¡Zas! Ahí está; ya estamos en ese mar tropical necesario e imprescindible para la formación de este tipo de Señora Roca Caliza que hoy en día forman los grandes montes de Euskadi, entre ellos la escuela de escalada de Araotz.

Araotz es en estos momentos una de las más importantes zonas de escalada de Euskal-Herria y, sin duda alguna, la mejor para la práctica de la escalada de alto nivel.

Cuenta con siete sectores en los que se pasa de placas técnicas con complicados movimientos de pies hasta grandes desplomes donde poner a prueba los brazos. Las dificultades de las vías oscilan entre el V+ y el 8b+, contando con un 8c? que roza el nivel mundial, todavía a un paso.

Además la zona ofrece un bello paisaje en el que uno puede perderse siguiendo el vuelo del majestuoso buitre o buscando el anhelado fósil.


Aitor «Txalaparta»-n (7a).



Jaturabe-ko urtegia eta Araotz-eko harana.



ARAOTZ



ARAOTZ: Seriedad jaunak eta Korea neskatoak elkar ezagutu zuten eguna.


DUELA urte batzu Zubillagako suhiltzaileek beraien entrenamenduetan erabiltzen zituzten San Elías basiliza inguruko paretak, gaur egun garrantzi handiko eskalada eskola bihurtu zaizkigu. Urteak pasa dira, baina ez alferrik. Suhiltzaileen ondoren etorritako talde desberdinek, beraien lana dela medio, gero eta indar gehiago hartzen ari den eskaladako lekua sortarazi dute.

Araotzen, 7 sektore desberdinetan banaturik, 100 bide baino gehiago daude, denak parabolatuta eta spit sendoekin ekipatuta. Bide bakoitzeko bide txikiak (*Marino Lejarreta se la sube en bicicleta* adibide nabarmena da) 50 metro dauzkatenetara pasatuz (*El mercader de Venecia*) abaniko luze eta zabala hedatzen da, edozein eskaladoreren grina asetzeko modukoa. Zailtasunari buruz, gusto eta indar guztietarako: V+ -etik (*Arranca Ya!*) 8b+ -era (*Parva Naturalia*). Beraz, leku egokia asteburu on bat pasatzeko, batez ere Orkatzategiko menditontorak lainoz estalita agertzen direnean egun euritsu iragarri; orduan, beste lekuetan eskalada ezinezkoa denean, Araotz izan daiteke irtenbidea.

Zenbaiten ahoetan dabilen esaldia, hots, "bide motzak eta zailtasun merkea esaten dutenei, gure errespetu guztiakin: taladroa mintzo bitartean, hitzak soberan.

San Elías-ko haitzuloa eta basiliza.






San Eliasko horma. Josean «Txalaparte»-n (7a).


Ibiltariak eta eskalada munduan sartuta ez daudenek ere badute nora jo Araotzera etortzen badira. Lehendabizi San Elías haizulo-ermita ondoan dagoen aska bisitatu. Aintzian, haurdun geratzeko arazoak zituzten emakume ugari aska honetara etortzen ziren oinak bustitzera, emankortasun galdua berreskuratu nahian, nahiz eta kasu askotan emankortsun falta hori gizonaren kulpa izan. Arrikruz kobazuloko sarrera ere bisitatu beharrezkoa da; bertaraino joateko Jaturabeko urtegia zeharkaturik basoan zehar aldapaz gora doan bidetxidorra hartu behar da. Koba honek egun ospetsuak ezagutu ditu bere barrualdean lehoi eta hartzen hezurak agertu zirela eta. Ibilaldia amaitzeko gure bidaiak basora eramango gaitu. Basoa beti baso, aldakorra eta liluragarria. Udako egun luze eta berotasuetan errekako osinean plisti plasta ibili denari basoaren freskotasunak bere eskuak luzatuko dizkio. Eta Azaroko egun hauetan, Lope de Agirreren arima erratiak, barne pakearen bila dabilerarik, kriston sustoa emango dio haritzek jarritako muga pasatzera ausartzen denari; dudarik gabe.

Kontu zaharrak piska bat baztertuz goazen guri interesatzen zaigun harira: eskaladen inbentariora. Ondoko lerroen bidez sektore guztiak bisitatuko ditugu:


San Elías sektore klasikoa izanik bidez josita dago: *Polltax* (6c), zergarik ordaindu nahi ez duena igo dadila autobia honetatik.



Jabi «El dulce abismo»-n (6c).





Bea «Hornblenda» (7b) eskalatzen.




Conan dax librarian (8a), egun guztian liburutegian egonik, nondik arraio lortuko ete du Conan gixajoak hainbeste indar bide hau menperatzeko. *Haizea* (6c+), abexiak dioen bezala, haizeak hire lagunaren ipurzulotik jotzen duenean giro onik ez.

San Elias gainean **Goikua** dago: 6a batzuk (*Sepuku* eta *Izarren hautsa* gomendagarriak direla esaten badugu ez dugu gezurrik esango) eta zailtasun ezberdineko beste hainbat. *Mutilzaharrak Belle epoquen* biziko diren garaietarako.




Josean «Atracción fatal» (7c) egitan Goikuan.

Josean «Haizea»-ri ekiten (6c+).




PUENTING



Aitor «Essence absolue»-n (7a), Antosiñako beheko aldean.

Antosiña, kareharri gorrizko itsaso zabal eta bertikal batetan galduta ibili nahi dutenentzat. Sektori honi esker, Araotzeko eskalada eskolak mila bisitari ezagutu ditu. Hona etortzen dena pozik itzuliko da etxera, bigarren kalitatea hain goimailakoa da eta.

Seriedad Arrikruzteko sarreraren gainean dagoen horma desplomatua da. Han bizi diren zortziko guztiei, ba hori, Korea pakean uzteko, ezkontzeko gogorik ez daukako. Horma honen eskuineko aldean, goitik behera datorren zutabeen zehar *Appaloosa* (8a) dago. Seichelles-era joan gabe kokotero bat igo nahi dutenak, zaldi indiarraren gainean etor daitezela zutabe honetan pasatzera.




Puenting sektorea, arrazoi sendorik gabe baztertuta, leku ezezaguna da Araotze-ara etortzen diren gehienentzat, baina eskalada fin eta dotore batez gozatu nahi duenak badauka hemen non aukeratu.

Hauexek dira geratzen zaizkigun bi sektore jaio berriak: **Doluhaitz** eta **Korea**, bakoitzak bide bakarra izanik. Doluhaitzen *Xarma* (8a) dago; heriotzaren xarma izango da, parajearen hezetasuna eta harkaitzaren iluntasuna edonor ikaratzeko modukoak bait dira. Koreako *Panoramix* (8c?) oraindik igo gabe dago, hezur gogorra soketan zintzilikatzen diren arratoientzat.

Bukatzeko, ingurugiroari buruzko betiko gogoetak. Araotzek, orain arte denon laguntza egon den moduan, trukun eta garbi segi dezala. Gauzak honela saiek Orkatzategiko paretan dauden zuloetan beraien habiak egiten jarraituko dute eta zapelaitza, ziztu bizian airea zeharkatuz, zure eskaladetako lagunik onena izango da. ■

Po-Pol M.T. - Eskalada saila

Seriedad-ako «El flautista de Hamelín»-en (8a).



Fotos: Martín Ramirez Zubia.